

2020KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 60 INGURUMEN ETA HIRIGINTZA
Programa: 63 INGURUMEN JASANGARRITASUNA

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2020

Departamento: 60 MEDIO AMBIENTE Y URBANISMO
Programa: 63 SOSTENIBILIDAD AMBIENTAL

SAILAREN MEMORIA

MEMORIA DEL DEPARTAMENTO

I. MEMORIA

Hona hemen 2020ko ekitaldian Ingurumen Jasangarritasunaren Programaren barruan egindako jardunen laburpena:

Degradatutako espazio eta paisaiak leheneratzeko arloko ekintza eremuari dagokionez, kontserbatu eta berreskuratzeko hainbat esku hartze ere gauzatu dira 2020an, batez ere ingurumenaren aldetik balio berezia eta sentsibilitateko eremuan tratatzean.

Lan ildo horretan, Zadorrako urtegien ertzak ekologikoki egokitu direnez, ibaiertzeko habitatak babestu, leheneratu eta hobetzeko lanak egiten jarraitu da, eta, zehazki, landaredia hobetzeko eta berreskuratzeko jardunak Garaioiko ibai inguruan.

Ingurumena berreskuratzeko beste jarduketa batzuen helburua izan dira antzinako zabortezi zigilatutako eta kontrolik gabeko isurketek degradatutako eremuak. Horri dagokionez, nabarmentzekoa da Kontrastan (Harana) garbitu eta hondakinak kentzeko, zigilatze eta bereoneratzeko egin diren jarduerak, bai eta landaredia leheneratu eta indartzeko lanak ere Lagran, Gesaltza Añana eta Toberan zaharberritutako antzinako hondakindegietan.

Arabako Mendialdeko natura asfaltuen meatze paisaiei arreta berezia eskaini zaie Eusko Jaurlaritzako Ekonomia Garapenaren eta Azpiegituren Sailarekin lankidetzaz hitzarmena izenpetuta, garrantzi historiko eta meatzari handiko meatze espazio zahar horietan natura ingurunea berreskuratzeko proiektuak egiteko eta jarduketak gauzatzeko, eta haien baliabide geologiko, paisajistiko, kultural, hezitzaile eta ekoturistikoei balioa emateko. Hitzarmena 2020-2023 aldian gauzatzeko planteatzen da.

Lan esparru horretan, 2020ko ekitaldian, Lucia meategia (Arraia-Maeztuko udalerría) segurtasunean

I. MEMORIA

Las actuaciones realizadas a lo largo del ejercicio 2020 dentro del Programa de Sostenibilidad Ambiental se resumen a continuación:

En lo que se refiere al campo de acción en materia de Restauración de Espacios y Paisajes Degradados se han ejecutado a lo largo de 2020 diversas actuaciones de conservación y regeneración focalizadas principalmente al tratamiento de ámbitos de especial valor y sensibilidad ambiental.

En esta línea de trabajo, se ha dado continuidad a la adecuación ecológica de las márgenes de los Embalses del Zadorra con la ejecución de trabajos para la protección, restauración y mejora de los hábitats ribereños, y en concreto se han llevado a cabo actuaciones de mejora y recuperación vegetal en el entorno ribereño de Garaio.

Otras actuaciones de Recuperación Ambiental han tenido como objetivo antiguas escombreras selladas y ámbitos degradados por vertidos incontrolados. Destacar a este respecto las actuaciones de limpieza y retirada de residuos, sellado y restauración llevadas a cabo en Kontrasta (Valle de Arana), así como la regeneración y refuerzo vegetal en las antiguas escombreras restauradas de Lagran, Salinas de Añana y Tobera.

Los Paisajes Mineros de Asfaltos Naturales de la Montaña Alavesa han sido objeto de atención especial con la firma de un Convenio de Colaboración con el Departamento de Desarrollo Económico e Infraestructuras del Gobierno Vasco para la elaboración de proyectos y ejecución de actuaciones de recuperación del medio natural en estos antiguos espacios mineros de gran significación histórico-minera y para la puesta en valor de sus recursos geológicos, paisajísticos, culturales, educativos y ecoturísticos. El Convenio se plantea para su ejecución en el periodo 2020-2023.

En este marco de trabajo se ha redactado en este ejercicio 2020 el Proyecto de obras de puesta en

2020KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 60 INGURUMEN ETA HIRIGINTZA
Programa: 63 INGURUMEN JASANGARRITASUNA

jartzeko, sendotzeko eta erabilera publikorako eta ekoturistikorako egokitzeko obren proiektua idatzi da. Meategia meatze paisaien multzo horretan balio handieneko kokaguneetako bat da, eta hurrengo ekitaldietan gauzatuko da, hitzarmena garatuz.

Ibilbide Berdeen Sarea egokitu eta hobetzeari buruzko kapituluan, landa eta hiri konexioa bultzatzeko azpiegiturei buruzkoan, mugikortasun iraunkorrek moduak sustatzeari buruzkoan eta ingurune naturalera errespetuz hurbiltzeari buruzkoan, nabarmentzekoa da Nerbioiko parke linealean Delikako Bide Berdearen ibilbide berria martxan jarri dela, trazadura eta ekojolaserako ekipamendua hobetu dela Gesaltza Añana - Caicedo Yusoko lakua eta Uña haitzaren ibilbidean Gatz Haranetik igarotzean, Muera ibaiaren gainean pasabide bat eraiki eta Santa Maria elizaren inguruan atsedengune bat egokitzea aurreikusitako baita.

Guardiako Aintzira Guneko Ibilbide Berdeen beste hobekuntza esku hartze batzuk egin dira. Ibilbide hori oso erabilia da, eta norabide eta informazio seinaleak erabat berri dira erabiltzaileentzat.

Nabarmendu behar da, halaber, Arabako Ibilbide Berdeen Sarea egokitzeko eta hobetzeko obrak gauzatzeko proiektuak idazteko egin den alderdia, etorkizuneko aurrekontu ekitaldietan inplementatzeko asmoarekin. Ildo horretan, GR 99 Ebroko Bidea Arabako Lurralde Historikoaren parean leheneratzeko eta hobetzeko proiektu exekutiboak egin dira, baita Zambrana - Gatzaga Buradon Ibilbide Berdea egokitzeko ere.

Espazio publikoak jolaserako erabiltzeko egokitzeak ingurumen baliabideez gozatzea bultzatzen du, Arabako natura eta paisaia ondarearen gaineko ezagutza sustatzen du eta naturan izanik ekojolaserako jarduerak garatzen laguntzen du. Arabako Lurralde Historikoko parkeak gero eta gehiago erabiltzeak erakusten du programak zer nolako arreta ematen dien. 2020. urte honetan, bereziki handia izan da naturagune horietara joandako herritarren kopurua.

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2020

Departamento: 60 MEDIO AMBIENTE Y URBANISMO
Programa: 63 SOSTENIBILIDAD AMBIENTAL

seguridad, consolidación y acondicionamiento para el uso público y ecoturístico de la mina Lucia (municipio de Arraia-Maeztu), uno de los enclaves de mayor valor de este conjunto de Paisajes mineros, para su ejecución en próximos ejercicios en desarrollo de este Convenio.

En el capítulo de Acondicionamiento y Mejora de la Red de Itinerarios Verdes, infraestructuras para el impulso de la conexión rural y urbana, promoción de los modos de movilidad sostenibles y acercamiento respetuoso al medio natural, cabe resaltar la puesta en servicio del nuevo recorrido de la Senda Verde de Delika en el Parque Lineal del Nervión, así como la mejora de trazado y del equipamiento ecorrecreativo en la Ruta Salinas de Añana-Lago de Caicedo Yuso y Peña La Uña a su paso por el Valle Salado que ha contemplado la construcción de una pasarela sobre el río Muera y acondicionamiento de una zona de descanso en el entorno de la Iglesia de Santa María.

Otras intervenciones de mejora realizadas han tenido lugar en la Ruta Verde del Complejo Lagunar de Laguardia, itinerario que registra una elevada intensidad de utilización, en donde se ha llevado a cabo una renovación completa de su señalización direccional e informativa para el usuario.

Destacar también la faceta desarrollada de redacción de Proyectos de ejecución de obras para el acondicionamiento y mejora de la Red de Itinerarios Verdes de Álava con vistas a su implementación en ejercicios presupuestarios futuros. Se han elaborado en esta línea los Proyectos ejecutivos de restauración y mejora del GR 99 Camino del Ebro a su paso por el THA, así como el de acondicionamiento del Itinerario Verde Zambrana-Salinillas de Buradon.

El acondicionamiento de espacios públicos para el uso recreativo potencia el disfrute de los recursos ambientales, promueve el conocimiento del Patrimonio Natural y Paisajístico de Álava y favorece el desarrollo de actividades ecorrecreativas en contacto con la Naturaleza. La utilización creciente de los Parques del Territorio Histórico es reflejo de la atención que a los mismos se plantea desde el programa. En este año 2020 ha sido especialmente intensa la afluencia de la ciudadanía a estos espacios naturales.

2020KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 60 INGURUMEN ETA HIRIGINTZA
Programa: 63 INGURUMEN JASANGARRITASUNA

Garaio eta Landako parkeetan, horien hondartzek 2016an Bandera Urdina eskuratu zutenak, zerbitzuak, ekipamenduak eta azpiegiturak hobetzeko zenbait esku hartze gauzatu da. Azpimarratzekoak dira Garaio eta Moskurio eta Salurriaga hondartzetako dutxa gunetarako sarbide egokitu berritzeko eta hobetzeko egin diren lanak, hondakinak biltzeko edukiontzi egokitu berriak erosi izana eta egurrezko etxola berri bat jarri izana Laguntza eta Sorospen Postuetako baterako Landako parkean.

Garaio eta Landako parkeko hondartzak ere egokitu eta hobetu dira.

Zerbitzuaren jardura esparruak beste arlo bat ere hartzen du: plan, programa eta proiektuek ingurumenean duten inpaktua ebaluatu eta zuzentzea. Izan ere, egiaztatu da hori garrantzi handiko bitartekoa dela gure lurraldeko ingurumen balio eta baliabideak antolatu eta babesteko. Horiek horrela, Ingurumen Ebaluazioaren Atalak horri buruzko txostenak igorri eta kasuan kasuko espedienteak bideratu ditu.

Azkenik, aipatu behar da Europako Batzordeak 2019ko ekainaren 22an emandako "Wildlife Economy" mugaz gaindiko lankidetzaren proiektuan parte hartu duela Aldundiak Europako beste 7 bazkiderekin batera. Garatutako jardueren artean, honako hauek nabarmentzen dira: proiektuaren gaiari buruzko esperientziak eta informazio aplikatua trukatzeko lantaldeetan parte hartzea, eta Negozio Jasangarriaren Ereduaren Azterlan bat egitea natura eta basa bizitzaren oinarri hartuta ekonomia sortzeko jardueretarako, Deustuko Unibertsitateak garatua.

II. PROGRAMATUTAKO HELBURUEN GAUZATZE MAILA

Ekologia eta paisaia leheneratzeko eta habitat naturalak hobetzeko 2020an egindako jardunaren ondorioz, 20.060,00 m² leheneratu eta hobetu dira ingurumenaren aldetik.

Mugikortasun jasangarrirako azpiegiturei dagokienez, Arabako Ibilbide Berdeen Sarea egokitzeko eta hobetzeko esku hartzeak gauzatu dira 12,6 km-tan, eta, gainera, eraiki eta abian jarri da Delikako bide

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2020

Departamento: 60 MEDIO AMBIENTE Y URBANISMO
Programa: 63 SOSTENIBILIDAD AMBIENTAL

Los Parques de Garaio y Landa, cuyas playas han obtenido desde 2016 el distintivo de Bandera Azul, han sido objeto de varias actuaciones dirigidas a mejorar sus prestaciones, equipamientos e infraestructuras. Destacar los trabajos de renovación y mejora del acceso adaptado a las zonas de duchas de las playas de Moskurio y Salurriaga de Garaio, la adquisición de nuevos contenedores adaptados para la recogida de residuos y la instalación de una nueva caseta de madera para dotación de uno de los Puestos de Asistencia y Socorrismo en el Parque de Landa.

El acondicionamiento y mejora de las playas del Parque de Garaio han sido otra de las actuaciones de trabajo abordadas.

La Evaluación y Corrección de Impacto Ambiental de Planes, Programas y Proyectos, otra de las disciplinas que abarca el ámbito de actuación del Servicio y que se confirma como una herramienta de gran importancia en la ordenación y protección de los valores y recursos ambientales de nuestro territorio, ha sido objeto de atención por la Sección de Evaluación Ambiental a través de la emisión de informes y la instrucción de los correspondientes expedientes.

Reseñar por último la participación en el Proyecto de Cooperación transfronteriza "Wildlife Economy" concedido por la Comisión Europea el 22 de junio de 2019 y en el que la Diputación participa con otros 7 socios europeos. Entre las actuaciones desarrolladas destacan la participación en los grupos de trabajo para intercambio de experiencias e información aplicada relativa a la temática del Proyecto, y la elaboración de un Estudio de Modelo de Negocio Sostenible para actividades de generación de economía a partir de la Naturaleza y la Vida Silvestre desarrollado por la Universidad de Deusto.

II. GRADO DE CUMPLIMIENTO DE LOS OBJETIVOS PROGRAMADOS

Las actuaciones de restauración ecológico-paisajística y mejora de los hábitats naturales llevadas a cabo en 2020 han supuesto la regeneración y mejora ambiental de 20.060,00 m².

En cuanto a las intervenciones en infraestructuras para la movilidad sostenible han sido objeto de actuaciones diversas de adecuación y mejora un total de 12,6 Km de la Red de Itinerarios Verdes de Álava, a lo que se

2020KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 60 INGURUMEN ETA HIRIGINTZA
Programa: 63 INGURUMEN JASANGARRITASUNA

berdearen ibilbide berria, 4,891 km-koa, zerbitzuan dagoen sarera gehituta.

Garaio, Landa eta Mendixurko parkeetan 201.332 bisitari egon ziren 2020an. Garaio Parkeko informazio bulegoan 1996 bisitari artatu dira.

Planek, programek eta proiektuek ingurumenean duten inpaktua ebaluatzeari eta zuzentzeari dagokionez, 150 txosten egin dira 2020an.

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2020

Departamento: 60 MEDIO AMBIENTE Y URBANISMO
Programa: 63 SOSTENIBILIDAD AMBIENTAL

suma la construcción y puesta en servicio del nuevo recorrido de la Senda Verde de Delika con 4,891 Km de longitud que se incorporan a la Red en servicio.

Los Parques de Garaio, Landa y Mendixur han recibido en 2020 un total de 201.332 visitantes. Han sido atendidos en la Oficina de Información del Parque de Garaio 1996 visitantes.

En materia de Evaluación y Corrección de Impacto Ambiental de Planes, Programas y Proyectos, se han emitido más de 150 informes a lo largo del año 2020.